



MUSIKA

Mugaldekoen sua



Mugaldekoak Band, jendaurreko emanaldi batean.

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Sasoiko daude, bizkor, gogotsu. Hori antzeman daiteke binilozko single honetako bi kanta politak entzunez gero. Haien aurreko hiru diskoetan literatura uztartu dute pop-rock, folk eta country kutsuko doinuekin, eta bi kanta hauetan gitarrak indartsuak dira, sua darie, eta rock doinu sendoak eta erritmo biziak entzun daitezke.

Izan ere, Mugaldekoak taldea Mugaldekoak Band bilakatu da, rock laukote, eta horrela grabatu ditu bi kantak. *Zer duzu? Velvet Underground* taldearen *What Goes On* kantaren bertsioa da: “Zer duzu buruan? Zuhaitzen erroak agerian. Zer duzu gogoan? Sabai guziak daude zolan. Maitea egin behar duzuna, dena ongi joanen baita”. Bigarren kanta ere bertsio bat da, Noise Hole taldearen *Zure ondoan* kantarena: “Gela ilun

bat dago bihotzean, mina ematen du atea zabaltzean, ezintasunaren pozoia, odolean nahasia, mamu zitala bihurtzen da; zure ondoan uxatuko nuke”. Mugaldekoak Band taldeko bi kidek ongi ezagutzen dute, Beñardo Goietxe (ahotsa eta gitarra) eta Raul Garcia (gitarra, ahotsak eta harmonika), Noise Hole taldean aritu baitziren 1990eko hamarkadan.

Biek eta Edu Zelaieta idazleak sortu zuen Mugaldekoak taldea, Zelaietaren izenburu bereko liburuko olerkiei musika jartzeko. Beste poeta batzuen testuak ere musikatu dituzte (Joan Margarit, Wislawa Szymborska, Margarita Robleda, Nazim Hikmet), zenbait abeslariren kantak euskaratu dituzte (Johnny Cash, Leonard Cohen, Vashty Bunyan, Bob Dylan), kantak sortu, eta



ZER DUZU? ZURE ONDOAN MUGALDEKOAK BAND

GAZTELUPEKO HOTSAK, 2019

hiru disko osatu dituzte: *Biziago sentitzeak dakarren muga inguruan* (2006), *Begiak lekuko* (2012) eta *Galdemoduen trilogia* (2017).

Lan horiek aurkezteko hainbat emanaldi egin dituzte urteotan, modu akustikoan gehienbat, Zelaietaren poema irakurketak eta abestien interpretazioa uztarturik. Duela urtebete inguru, Martin Arbelaitz (bateria) eta Xavi Perez Bull (baxua eta ahotsak) hasi dira taldean jotzen eta, Mugaldekoak Band bezala, rock soinuaren aldeko apustua egin dute.

Gaztelupeko Hotsak zigiluaren Lokatzetan Play single bildumako ale berria da Mugaldekoak Bandena. Aurretik, Txuma Murugarren, Capsula, Jon Gurruixaga eta Joseba Tapiarenak argitaratu dira bilduma horren barruan. ●